



...eta kitto!



Bonbardatutako iragana berreraikitzen

50
KRISTAL

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 70 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
Lehena zerbitzu optikoetan.

- Antonio Murillo doktorea
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA
- Ainhoa Zulueta doktorea
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA
- Susana Sierra doktorea
ORTODONTZIA, OKLUSIOA



**Edozein tratamendu
dela ere, eskaintzen
dizkizugun abantailekin**


**BELDURRA
DENTISTARI?**

ZER DA HORI?



Sedaziazarekin

gustoa



ematen du!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
ostegunera:
10-14 / 16-20h / Os-
tiraletan:
10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

RPS 04/02



ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Eibarko Udal Artxiboa

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IÑUSKA EGIN.- Animalixak (basurdeak eta txarriak normalean) lurtean muturraz aztarka egin. Gaztelazko 'hozar'. "Kortatik atara orduko basatzen iñuska egiten hasten zan txarrikumia".

IÑUZENTE ERAGIN.- Norbaiti ziria sartu Inuzente Egunean. "Iñuzente eragin eta bialdu dot duako arduatara".

IPIAPA.- Goitik behera, zehatz-mehatz. Erderaz 'de pe a pa'. "Ipiapa, ekixen guztia esan zetsan".

ESKUTITZAK

ZORIONAK EIBAR: DENON ARTEAN LORTUKO DUGU!

Martxoaren 29ko greba orokorrak erabateko jarraipena eduki zuen gure herrian, bai poligonoetan bai herrian bertan, eta lantegi gehienak, komertzioak eta tabernak itxita egon ziren. Beraz, berriro diogu: Zorionak!

Aspaldiko partez gure herrian ez dahainbeste mugimendu, propaganda, pankarta... ikusi. Lan itzela egin da greba aurrera ateratzeko. Langileok hamarkadetan ezagutu dugun erasorik bortitzena salatuzko eta beste-lako alternatibarik egon badagoela adierazteko indarrak batu egin ditugu eta eraginkorrak izan gara.

Martxoaren 28an egindako manifestazioak motorrak berotzeko balio izan zuen. *Manifa* antolatuta zuten kolektiboek bete betean asmatu zuten. 29an bertan poligonoak eta herria geraturik zegoen, Donostiako *manifa* erraldoia izan zen, arratsaldeko Eibarren egindako *manifa* urte luzeetan herrian egin dugun handiena izan zen zalantzarik gabe.

Eguna biribila irten ahal izateko lagun askok eta kolektibo ezberdinek bere aletxoak jarri baguen ere, azpimarratzekoa da herrian gazteriak egindako lana, lanketan eta *manifa* ezberdinetan gazteriak izandako presentzia.

Eguna *kolosala* izan bazen ere, badira aipatu beharreko salbuespenak. Denda eta taberna gutxi batzuk

zabalik egon ziren. Dugun diru apurra gurea denez, erabaki behar dugu insolidario izan diren horien komertzio eta tabernetan sartuko garen. Baina salbuespen kapituluan "El Corte Ingles" merkatalgunea gogoeta berezia eskatzen du. Ez da lehenengo aldia greba deialdietan zabalik egoten dela. Komentatu dugunez, gure diruaren jabe Geu garenaz, 29an greba egin genuen guztiok sartuko ez bagina, gure herrira prekaritatea besterik ekarri ez duen merkatalgunea betirako itxtea lortuko genuke.

Martxoaren 29an metatutako indarrak alternatiba eraikitza bideratu behar ditugu. Enpleguaren defentsa eta langileon eskubideen defentsa lehenengo lerroan kokatu behar ditugu, euskal langileok behar dugun lan harremanetarako arautegi propioaren bidean, Espainiako Gobernu eta agintari ekonomikoetatik krisia eta miseria direlako eskainiko digutena. Martxoaren 30ean, Madrilgo Gobernuak beste neurri paketea iragarri du. Gerrikoa gehiago estutzea eskatzen digute; mar-txa horretan gerrikoa ere kenduko digute.

Laster plazaratuko dugu LABek neurri berri hauen gainean egiten duen irakurketa eta planteamendua. Birtartean: animo, eta jo ta ke.

EIBARKO LAB

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Geratzen direnak gazte-gazteak ere ez dira, baina inor ez dator atzetik. Urteotan nire inguruan egon direnek hamar bat urte gutxiago dauzkatenaz, hamar urte badauzkate oraindik lanerako. Zenbat kobratuko duten galdetzen digute berehala gazteek. Presidenteak adina irabaziko dutela erantzuten diet: euro bakar bat ere ez, alegia. Orduan ez dutela etorri nahi esaten dute, jendea oso materialista baita. Badira egun bakarrean laguntzeko prest daudenak, baina inork ez du hartu nahi urte osoko lanaren ardura"


(Jaime Ugarte, Euskadi Txirindularitza Antolakuntzako presidentea)

"Artistok erronka izugarria izan dugu gure tokia hartzeko, eta sukaldariek euren bideari jarraitu beharko liokete, gurean sartu gabe: guk ez dugu esaten gu ingeniari estetikoak garenik, adibidez. Ingeniaritza artea ez den moduan, sukaldaritza ezta! Diziplina desberdinak dira, lengoaia desberdinekin. Adriaren El Bulliko dekonstrukzioa deskonposizioa baino ez da. Guretzat artean dekonstrukzioa ulertzea hiru-lau urteko lana da fakultatean, buruari eragiten, gero tortillaren deskonposizioari dekonstrukzioa deitzeko"

(Urki Salaberria, Arte Ederretako doktorea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

asteko
200
datua

lagun inguru izan dira Aste Santuan Eibarko Hezkuntza Esparruan kultur eta kirol arloko hainbat kontzentrazioetan. Talde jendetsuena musika kontserbatorioetako gazteena izan zen; saskibalo, gimnasia erritmiko eta xake kanpusak ere izan ziren.

II. Errepublikiak 81 urte beteko ditu bixar

BIXAR APIRILLAK 14 IZANGO DITU ETA, URTEROKO MODUAN, HOLAKO EGU- NIAN Eibar II. Errepublikia aldarrikatzen lehelengo herrixa izan zala gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu dira. Eibarko alderdi sozialistako kidiak Untzagako "Casa del Pueblo"-ko balkoian Errepublikaren banderia ipiñiko dabe 11.30xetan eta horren arduria oin dala 81 urte egun historikua ezagutu eben Ernesto Gorosabelek eta Juan de los Toyosek eukiko dabe. Jarraixan, urteroko moduan, Txaltxa Zelaixan txapli- guak botata gogoratuko dabe aldarrikapenaren urteurrena.



Urteroko moduan, Errepublikia gogoratuko da beste behin gurian. / LEIRE ITURBE

Bestalde, Gazte Komunistak eta PCE-EPK alderdixak antolatuta, 11.00ak aldera abiatuko da "3. Errepublikarantz. Iragna, oraiña eta etorkizuna" Ermua eta Eibar bittarteko mar- txia. Bertan parte hartzen dabe-

nak Untzagara ailegatuz, eguardi partian, udaletxe parian Errepublikaren banderia jasoko dabe eta, jarraixan, nahi dabe- nak Ezker Anitza-IUK antolatu daberen herri-bazkarixan parte hartzeko aukeria izango dau.

Andrazkuendako lau ikastaro

BARDINTASUNERAKO ARLUAK ANDRAZKUENDAKO BERE- ZIKI ANTOLATUTAKO LAU IKASTARUETAN izena emoteko epia martitzenian zabaldu eben eta interesa dakenak hillaren 26ra arte

izango dabe horre- tarako aukeria, Pegoran. Ikastaruak oso esparru dife- rentietan trebatze- ko pentsatutakuak dira: Autodefentsa feminista, Batuka- da feminista, Hiri- gintza eta Generoa eta Kotxeko meka- nika eta etxeko konponketak (tailer praktikoa). Bakotxaren gaiñeko informaziño osua Pegoran bertan eskatu leike edo interneten, www.eibar.net helbidian konsultau.



Poliklinikiak zentrua zabalduko dau Eibarren, Ibarkurutze 2xan

EKAÏÑAREN 1-IAN POLIKLINIKA GIPUZKOAK EIBARREN ZENTRO BARRIXA ZABALDUKO DAU, Ibarkurutze kaleko 2xan. Bertan erradiologixia, mamografixia, ekografixia, analisi klinikuak eta konsulta bakotxari lotutako zerbitzuak eskintzeko asmua dake. Medikuntza-zentrua preparatzeko millioi bat euro erabiliko dittue eta 382 metro karratuko azalera 9 konsulta, sendatzeko-gelak, X



izpizen ekipua, ma- mografua eta gine- kologixa zein sabe- lalderako ekografua egongo dira, bestiak beste. Horrekin ba- tera, gehixen erabi- lizen diran espeziali- dadiak be eskindu- ko dittuela aurreratu dabe bertako ardu- radunak.

I. Menu Gastronomikuen lehiaketia

EIBARKO DENDA ETA JATE- TXIETAN KONSUMUA SUSTA- TZEKO ASMUAREKIN, EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIAK

I. Menu Gastronomikuen lehiaketia ipiñi dau martxan eta martitzena izan zan horren harira preparau da- ben bono-sistemia aprobetxatzeko lehen eguna: Eibar Merkataritza Gune Irekiko establezimenduetan 100 euro edo gehixagoko eroske- tak egittian (erosketa-tiketak pilla-


tzeko aukeria emoten dabe), Batzo- ki, Birjiñape, Chalcha, Depor, El Corte Inglés, Hodei Taberna, Kultu edota Suberoa jatetxietan menu berezixa dastatzeko aukeria eukiko dau bezeruak; menuaren eta eros- keten tiketak eskuratu ostian, bar- riz, jatetxian bertan edo EMGI-n bertan horrek entregau eta, trukian, 17 euroko oparixa jasoko dau etxian, ekaiñaren 30a baiño lehen herriko dendetan gastatzeko.



Grebak jarraipen haundixa euki eban gurian

LAN ERREFORMA BARRIXAREN KONTRA PROTESTA EGITTEKO SINDIKATUAK MARTXUAREN 29RAKO DEITTUTAKO GREBA

orokorrak oso jarraipen haundixa euki eban Eibarren: goizian goizetik eta egun osuan, herriko tailer gehixenak geratuta egon ziran eta gauza bera gertatu zuen denda, taberna eta bestelako establezimenduetan. Bestela, eguna gorabehera haundi barik pasatu zuen eta bezperan zein egunian bertan egindako manifestaziñuak herriko kaliai lasai, liskarrik eragin barik ziherkatu zittuen; hori bai, martxuaren 29ko manifestaziñuak batu eban jendetza Eibarren ez da urtietan ikusi.



Azken aldiko manifestaziño haundixena egin zan Eibarren martxuaren 29xan. / SILBIA HERNANDEZ



Mogel Isasi BHI-ren aldameneko parkiak hartuko dau izen barrixa. / LEIRE ITURBE

ZAPATUAN 10.30-XETAN PRESENTAUKO DABE EIBARKO KALE-IZENDEGIXARI GEHITU BARRI detsen plazia, Armeria Eskola Plaza, hain zuzen be. Armeria Eskolak bere sorreriarren men-deurrena ospatzeko antolatutakuen testuinguruan

kokatu biharreko ekitaldixan udal ordezkariak, eskolakuekin batera, ikastetxe pareko parkiari (Mogel Isasi BHI-ren aldamenekuari) izena emoteko plakia danen begibistan lagako dabe eta, aurrekua dantzatuta, inauguratutzat emongo dabe.

'Armeria Eskola Plaza' kale-izendegixari gehitu detse

Ametsetako hirixa irudikatziak sarixa dauka

DEBEGESAK "AMESTU ZURE HERRIA. ZEIN HERRI MOTA ERAIKI NAHI DUGU?" IKASLIENDAKO LEHIAKETIA abiarazi dau. Mailla bi dagoz, adiñaren arabera, eta ikasliak taldeka parte hartzeko aukeria dake, amesten daben herri ideala irudikatzen daben muralak eta bideuak bialduta. Jasotako biharrek www.gurebalioak.com atarixan ikusgai ipintzen dihardue jaso ahala. Lanak bidaltzeko azken eguna apirillaren 30a izango da eta, hortik aurrera, nahi daben herritar guztiak aste biko epia izango dabe (maiatzaren 14ra arte) gehixen gustatzen jakuenaren aldeko botua emoteko. Irabazlien izenak maiatzaren 15ian emongo dira ezagutzera. Talde irabazle bixak Euskal Kostaldeko Geoparkeaz gozatzeko ibilaldi bana jasoko dabe sari modura.

autuan

AGIFES-EN IKASTARUA


Agifes Gipuzkuako Famili eta Eri Psikikuen Elkarteak gaixotasun mentala dakenen famelixakuendako ikastarua antolatu dau, Udalaren babesarekin eta "Gaixotasun mentolarekin hobeto elkarbizitzen ikasi" izenburuari jarraituta. Gaiarekin interesa dakanak antolatzailliekin kontaktuan ipintzeko aukeria dauka Agifesen telefonora (943 474337) edo Gizartekintzarako (943 708440) deittuta.

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ


2011ko errenta aitortpenaren kanpaina hasitta dago eta egunotan autolikidaziño proposamenak etxietara aillegatzen dihardue. Jasotzailliak proposamena berresteko 902 100 040 telefonora deitzeko aukeria dake edo, nahixago badabe, www.gipuzkoa.net web-erajoa leikie. Deklarazinau beste bideren bateri jarraituta (mekanizaua, gestorixa bittartez...) egin nahi dabenak edozein modalidade aukeratuta be aitortpena euskaraz egitteko aukeria daguala gogorazi dabe.

SANJUANETARAKO BILLERIA

Udaleko Kultura saillak hurrengo San Juan jaixak prestatzen hasteko billera irekixa deitu dau hillaren 16rako (astelehena), 19.00etan Portalean. Egitarauaren antolakuntzan parte hartu nahi dabeneri bertara agertzeko dei egin nahi detse berezik.



**MILA ESKER, BIHOTZ-BIHOTZEZ,
MARIXABEL IBARRAREN
SENDIAREN PARTEZ.
GOGORA DEZAGUN IZAN ZEN BEZALA.
ZUEK ERE GARRANTZITSUAK IZANGO ZINETEN
BERARENTZAT, BERE AGURREAN IZANDA.**



Hillaren 16tik aurrera aldaketak garraio publikuaren ordutegixetan

DATORREN ASTELEHENETIK AURRERA HAINBAT ALDAKETA EGONGO DIRA DEBABARRENAKO AUTOBUS ZERBITZUEN ordutegixetan. Batetik, Ermua eta Mendaro arteko autobusen maiztasuna 20 miñutukua izango da (oiñ arte 30 miñutukua izan da) eta zapa-tuetan zerbitzu bat gehixago egongo da. Batetik, Eibar-Deba Express zerbitzua desagertu egingo da erabiltzaille gitxi dittalako. Elgeta eta Eibar arteko jua-erorrixan be aldaketak egongo dira; eta astian zihar 5 autobus gehixago egongo badira, asteburu eta jaiegunetan bi gehixago. Laugarren eta azken aldaketia Azpeitia eta Ermua arteko zerbitzuari dagokixo, zerbitzu gehixago eskinduko diralarik. Informaziño gehixagorako: www.euskotren.es.



Aldaketokin autobus zerbitzu gehixago izango dira gure eskualdian. / LEIRE ITURBE



Giza-kataiak bixarBilbon egingo dan manifestaziñuan izango dau jarraipena. / LEIRE ITURBE

Presuen aldeko giza-kataia

MARTXOKO AZKEN BARI-XAKUAN, EIBARKO HERRI-RA-K DEITTUTA, EIBARTAR MORDUAK GIZA-KATAIA OSATU eta herriko kaliak ziharkatu zittuan, gaixo larririk dittuen presuak, zigorra beteta dakenak eta zigorraren 2/3ak eta 3/4ak betetak dittuenak be

askatzeko eskatzen, baita beste preso guztiak gerturatzeko eta iheslaririk Euskal Herrixan bizitzeko eskubidia izateko eskatzen be. Bestalde, bixar 17.30xetatik aurrera Bilboko La Casillatik abiatuko dan manifestaziñora juatera animau nahi dittue eibartar guztiak.

Industria-instalaziñuen inspekziñorako robotak

INDUSTRIA-MANTENUA ERROBOTAK ERABILLITTA HOBETZEKO ASMUARI JARRAITZEN DETSAN Europa maillako

Mainbot proiektua garatzen dihardue IK4-Tekniker teknologixa zentruan. Europako Batasunak diruz-lagundutako proiektuak 4 millioi euroko presupuestua daka eta Teknikerrekin alkarlanian beste batzuk be badihardue, bestiak beste Espaiñiako Torresol Energy Systems eta Tecnatom enpresak, Frantziako Robosoft-ek eta Alemaniako Fraunhofer IFF ikerkuntza zentruak. 2011ko azaruan hasittako proiektuak 3 urterako iraupena dauka eta FoF (Factories os the Future) programaren barruan dago.



DYak antolatutako Prebenziñuaren Astia hasiko da astelehenian

DATORREN ASTELEHENIAN HASI ETA BARIXAKUA BITTARTIAN EGUNERO HITZALDIXAK ETA TAILLARRAK musutruk eskinduko dittue DYako Eibarko ordezkartizan (Pagaegi, 5), 19.00etatik 21.00etara, Prebenziñuaren Astiaren barruan. Astelehenian ohiko larrialdixetan euki biharreko jokabidia azaltzeko hitzaldixa emongo dabe; martitzenian, barriz, oiñarrizko bendajiak zelan egin erakusteko taillarra eskinduko da; eguaztenian etxe barruko istripuen prebenziñua lantzeko hitzaldixa; eguenian bihotz-biriken susperziaren inguruko taillarra; eta barixakuan, barriz, "Zure bihotza zaintzia" hitzaldixa. Astia agurtzeko zapatuan, hillaren 21ian, 11.00etatik 12.00xetara moto-istripuaren simulaziñua egingo dabe DYaren lokalaren parian. Parte hartu nahi dabenak aurretik 943464622 telefonora deittuta edo irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com helbidera idatzitta izena emon biharko dau.




205 gerrako-umien izen bildu dira

GERRA ZIBILLEKO EBAKUAZIÑO ESPEDIZIÑUETAN JUAN ZIRAN UME EIBARTARRERI buruz Ego Ibarra batzordiak hiru hillebeteko tartian egindako ikerketari esker, 205 izen batzia lortu dabe eta horretan lagundu detsen guztieri euren esker ona helarazi nahi detse. Jaso dittuen datueri jarraituta, ume gehixenak Frantzian hartu zittuela ikusi dabe: "Lurralde gertukuena izatiaz gaiñ, errazago zan han sartzia. Frantzian kuarentenan egon ostian, Belgikara bidaltzen zittuen ume batzuk". Horrekin batera, Erresuma Baturako espediziñua be inportantia izan zan: Santurtzitik 1937ko maiatzaren 21ian urten zan, 4.000 umerekin eta tartian 21 eibartar eguazten. "Habana" trasatlantikian bi egunetan bidaiatu ostian, Southampton-era aillgau ziran haurrak. Urte bereko ekaiñian, bestalde, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunera beste espediziño bat urten zan Euskal Herritik. Ikerketaren gaiñeko dato gehixago www.egoibarra.com webgunian irakorri leikez.

Osasun arloko kopago dalakuarekin, pazientiak diru kantidade bat ordaintzia planteatzen dihardue atenziño medikua jasotzarren. Espaiñiako gobernuak ez dau ukatzen neurrixa aurrera etarako dabenik, baiña M^a Dolores de Cospedalen berbetan, "osasun-arduradunak erabagi biharko dabe bideragarritasuna aztertu eta gero".

Zelan ikusten dozu osasun-ordainkidetza edo kopagua?



JAVIER VALDIVIESO
39 urte
mekanikua

Oso txarto. Demasekua da sasoi honetan, dagan krisi ekonomikuarekin, holako neurrixa hartzia. Jendiak gero eta diru gitxiago dakanian, edozer gauzagaittik pagau arazi egitten deskue, gero eta gehixago gaiñera.



FATIMA GUERGGAR
30 urte
langabia

Txarto, bihar barik nago-eta. Lana dakatenak, prezio onian jarzen badetse zerbitzu horrek, moldatu ahal dira, baiña langabezixan gaguazanak gatxa dakagu osasun-zerbitzuak ordaintzeko. Neurri hau ez jata normala begittantzen.

ALICIA RODRÍGUEZ
36 urte
autonomua

Ikaragarrixa begittantzen jata neurrixa, ez jata bape gustatzen. Begittantzen jata erabiltzaillaren-dako kaltegarrixa dala eta neurri imaginatibuaguak asmau biharko zirala. Badakitt esatia erraza dala, baiña zeozer pentsau biharko leukie agintarixak.



ANDER APARICIO
24 urte
ikaslia

Alde batetik, neurrixa ondo da guala begittantzen jata, operaziño batzuk bihar-biharrezkuak ez diralako eta, oso karuak izanda be, nahiko ariñ egitten diralako. Bestetik, txarto ikusten dot hil ala biziko kasuetan neurrixa erabiltzia, jende askok ezingo dabelako pagau.



EGOITZA NAGUSIA
Blakborrieta 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errusketako labora

Egokibetan (lignu poligonoz)

Artikuluak, eskatu eta desaguz erretze zerbitzuak

Koizok - Eskola - Urtumandako eskola

Fuakal Herri eskola ospitaleko fortza 20 litro

Nazio eta Nazioarteko tralajeok

Mugica Ehorzketa
Fundazioa 1984

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

OTEGUI HARATEGIA

Etxeko plater kozinatu
eta aurrekozinatuak


Mobila. 652 77 25 42
Telefonia. 943 82 05 24
Urkizu, 28



Orain zaldikia (moxala)



ere badugu



Barry Manleyk (edo Barry Barrez, bere izen artistikoa) pare bat urte daramatza Euskal Herrian umorezko bakarriketak egiten, eta hilaren 17an Portalean izango da, 19.00etan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Ilunabarrian ekimenaren barruan. Gogo handiarekin dator Barry, ordubete zoragarria pasatzeko esperantzarekin.

BARRY MANLEY, "Barry Barrez":

"Jendearen aurrean aritzea droga da niretzat"

- Irlandar bat euskarazko bakarriketak egiten. Nola da hori?

Urte asko daramatzat Euskal Herrian. 22 urterekin etorri nintzen (50 ditut) eta euskara ikasteko jakinmina neukan, munduko hizkuntza zailenetarikoa delako, eta hemen goa. Guk, Irlandan, ez dugu gaelikoz hainbeste berba egiten. Urteak pasa dira eta nire kabuz ikasi dut hizkuntza: autoikaskuntza erabiltzen dut horretarako, oraindik ikasten dihardudalako. Ni, berez, idazlea naiz; eleberriak idatzi ditut. Gazteleraz ere sortze-literatura ikastaroren bat egin izan dut. Baina nire asmoa euskaraz zerbait egitea zen eta, orain dela lau urte, liburu bat idazten nengola (istorio luzea da baina laburbilduko dut), umorista zen pertsonaia batek bere buruz beste egin zuela; orduan, pertsonaia hori jendearen aurrean nola sentitzen zen jakin nahi izan nuen. Horrela, lagun batek esan zidan gaztetxe batera joateko bakarriketa egitera. Joan eta ia ordubete jardun nuen. Harrezkero hainbat lekutatik deitu didate eta iaz Bilabonako bakarriketa lehiaketan hartu nuen parte. Han jende asko ezagutu nuen eta, harrezkero, 20 bat saio egin ditut. Hor jarraitzen dut oraindik. Niretzat bidaia bezalakoa da, ez dakit nora noan.


- Momentuz Eibarrera.

Bai, hala da. 'An Seanachai Road Show' izeneko iksuskizunarekin nator. 'Seanachai'-a ipuin-kontalaria da gaelikoz. Ingelesez 'Stand up comedy' delakoa gustatzen zait,

gaztelerazko 'Club de la comedia', gauza ezberdinak diren arren. Nik horrelako zerbait egitea nahi nuen hemen: 'Stand up comedy' euskaraz. Hori egitea demaseko erronka da niretzat eta oso pozik nago ikuskizunak jendearen artean izan duen harrerarekin. Azkoitian, Azpeitian, Bilabonan, Andoainen, Iruenen... egon izan naiz (batzuetan bakarrik, beste batzuetan beste artistaren batekin).

- Nolako izango da 'An Seanachai Road Show' ikuskizuna?

Saio multimedia da. Mattin komikilariak marrazkiak egin ditu nire testuak irakurri ostean eta, horrela, nire txiste eta istorioak marrazkiekin batera kontatzen ditut. Saioaren munduko aurre-estrenaldia (barreak) joan den astean Donostiako San Telmo museoa egin nuen. Demaseko gogoia daukat saioa egiteko. Zertan datzan saioak? Lehenengo zatian euskaraz ikasteko prozesuari eta euskararen egoerari buruz egiten dut berba. Gaelikoarekin konparatzen dut pixka bat. Bigarren zatian, orokorrean, Irlanda eta Euskal Herriaren arteko konparaketa egiten dut: herrialdeen arteko berdintasun eta ezberdintasunak nire ikuspuntutik. Ordubeteko ikuskizuna da. Badakit Euskal Herrian ez dagoela ordubeteko saioak egiteko ohitura, baina ni ohituta nago, eroso sentitzen naiz eta ondo pasatzen dut. Jendearen aurrean aritzea gustatzen zait, droga da niretzat. Eibarren jendeak ez nau ezagutzen eta alderdi hori asko gustatzen 'jata', zuek diozuen bezala.



Txiste eta istorio originalak kontatuko ditu Barry Barrez martitzenean Portalean eskainiko duen saioan.

- 'Seanachai' delakoa gaelikoz ipuin-kontalaria dela aipatu duzu. Moduren batean Irlandako tradizio horri eusten diozu Euskal Herrian?

(Pentsakor) Bai. Nire aitona ipuinlaria izan zen, adibidez. Nire asmoa barrea eragitea da eta 'stand up comedy' egin nahi dut horretarako; baina, saioak ordubete irauten duenez gero, istorioak kontatzeko aukera dut.

- Umorea unibertsala da?

Bai, baina umore ona. Horrekin ez dut esan nahi nirea ona denik. Nire filosofian umorea mezuarekin batera eskaini behar da. Honakoa da nire mezua: nahiz eta kanpotarra izan, euskaraz ikasi daiteke.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com

**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA

elkarte@etakitto.com

75 urte pasauta be...

Eibarren 1937ko apirilla benetan baltza izan zan: Gernikan, Durangon, Otxandixon edo Elorrixon legez. Kalamua eta Intxorta aldian gerraren frontia sei hillebetian geldirik egon eta gero, apirillaren 20xan borrokaldixak eta bonbardaketak indartu ziran eta, handik bost egunera, apirillaren 25ian, gure herri gaiñetik pasau ziran abioietatik bota zittuen bonbak, herri guztian zabaldu zan suarekin batera, Eibar ixa oso-osorik suntsitu eben. Egun batzuk baiño ez dira falta bonbardaketaren 75. urteurrena betetzeko eta, hori goguan, Eibarko Udalak, Badihardugu Euskara Elkarteak lagunduta, maiatzera arte iraungo daben programaziño berezixa preparau dau.



Bonba arteko IRAGANARI HELTZEN

Apirillaren 21ian, Biharamuneko soka-dantza eta euskal dantzaren adierazpenarekin abiatuko dira ekitaldixak. 12.00xetan Untzaga plazan alkartu eta 12.30xetan Euskal Dantzaren Adierazpena egingo da udaletxian. Jarraixan, 13.00etan Biharamu-

neko soka-dantzia eskinduko dabe Untzagan bertan eta, behiñ hori amaittuta, nahi dabenak Iruki sagardotegixan 14.30xetan hasiko dan bazkari-rua juateko aukeria eukiko dau. Ekitaldixaren gaiñeko informaziño osua eta adierazpena Dantzan.com webgunian ira-

kortzeko moduan dago eta antolatzailliak diñuenez, "1937ko bonbardaketa latzak goguan, dantza arluan sasoi barri bate-rantz pauso bat emon nahixan, dantza munduan diharduen eragille, talde, alkarte, dantzari, dantza-maisu eta dantzazale guztieri dei egin nahi detsagu Biharamuneko soka-dantzan parte hartu eta euskal dantza tradizionala babestu, bultzatu eta indartzen segitzeko danon babesaren premiñan dagan adierazpenarekin bat egittera". Ekitaldixan parte hartu nahi dabenak biharkosokadantza@gmail.com helbidera idatzi biharko dau.

Bertsuak eta flamenkua bat eginda

Hillaren 25ian, barriz, Jesus Gutierrez historialari eibartarrak emongo daben hitzaldixan, bonbardaketak zelakuak izan ziran jakiteko aukeria eukiko dabe entzuliak. Historialarixak inbestigaziño bihar sakona eginda daka Eibarko Gerra Zibillaren inguruan eta bere ber-baldixan, bestiak beste, gure herrixan orduan sasoi bizi izandako berezittasunen barri



Maria Angela kaleko irudixa 1938xan. Atzian San Andres parrokixa ikusi leike. / INDALEZIO OJANGUREN / GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA.

emongo dau. Gutierrezek diñueez, "hildako kopuruari zeñ herrixaren suntsiketari begira, unerik latzenak izan ziran Isasi eta Errebal aldeko komentuetan tropendako eguazen kuartelak eta armen fabrikaziñorako beste punto estrategiko batzuk suntsitu nahixan abioiak bonbak bota zittuenian. Hain zuzen be 1937ko apirillaren 24 eta 25aren bittartian, italianuen bonbak lehertzian hamarnaka hildako eragin zittuen".

Programaziñuan hurrengua hillaren 26xan Maialen Lujanbio bertsolariak eta Juan Pinilla flamenko abeslarixak Coliseuan eskinduko daben poesia eta kantuen errezitala da: artista bixak, bertso, abesti eta poesiaz baliatuta, gerra sasoi gogoraziko dabe, alkarrekin baiña bakotzak bere aldetik jardunda. Euren ahotseri laguntzeko, bestalde, argazkixak eta bideuak erabilliko dittue, bestiak beste Indalecio Ojanguren argazkilarixaren eta Castrillo-Ortuoste fondoko irudixak erakutsita. Lujanbiok, jakiña, bertsuak erabilliko ditu Eibarren Gerra Zibillian pasautakua kontatzeko eta Pinillak, barriz, "Las voces que no callaron" gerraren



Ego errekia estaltzen orduko Dos de Mayo kalian. Irudixa 1943kua da. INDALZIECIO OJANGUREN / GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA.

gaiñeko hainbat olerkirekin osatutako bere disko barriko kanziñuetako batzuk eskinduko ditu.

Kutsu artistikoko ekitaldixak

Hillaren 27xan Bernardo Atxaga etorriko jaku, "Bonbardaketak 1937" izenburuko liburu presentatzera. Fikziño-liburu horretan Espaiñiako Literatura Sarixa jaso daben hainbat egillek hiri diferentietako bonbardaketan gaiñian idatzitakuak batu dittue: Bernardo Atxaga (Eibar), Ignacio Martínez de Pisón (Gernika), Jose Fernández de la Sota (Bilbo)

1937ko apirillaren 25ian abioiak Eibarko zerua ziharkatu eta, bonbak botata, herrixa ixa osorik suntsitu eben

eta Miguel González San Martín (Ezkerraldeko korridorea) dira idatzixen sortzailliak.

Egun berian, baiña gabaz, Untzagak "Itxaropena" argi, soñu eta irudixak osatutako ikuskizuna hartuko dau. Ordu-

bete inguruko iraupena dakan ikus-entzunezkuak 1937xan Euskal Herriko hainbat herrittan izandako bonbardaketak helarazi nahi detse ikusleri, artiarene ikuspegittik.

Eta hurrengo egunian be arte-kutsuko girua izango da nagusi, 19.00etatik aurrera Coliseuan eskinduko daben kontzertuan: Eibarko Andres Egi-guren orkestak eta Sostoa abesbatzak Donostiako Easo abesbatz ezaguna izango dabe bidelagun gure herriko bonbardaketa gogoratzeko prestatu daben emanaldixan.

Historixan atzera juateko urteeria

Eta, oiñ arte behintzat, 1937ko apirillera denporan atzera bidaiatzeko modurik ez badaukagu be, Gerra Zibillian herrixan benetan inportantiak izan ziran tokixak ezagutzeko maiatzaren 5erako antolatu daben urteeria horren sensaziñua bizitzeko aukeria emongo detsa bateri baiño gehixagori. Untzagatik abiatuko dan bisittiak, bestiak beste, 1936 eta 1937xan egunero bonba eta kañoiekin erasotu zittuen tokixetarañu eruango ditu parte hartzera animatzen diranak. Gaiñera, orduan sasoi argazkixak erakutsiko dittue, defentsarako erabilli zittuen baliabidien gaiñeko azalpenak emongo dira, abioien erasuetatik babesteko refugixuak nun eguazen erakutsiko dabe, eragin zittuen kaltiak, Alemaniako eta Italiako abiazifiuendako objetibo inportantienak zeintzuk ziran eta beste hamaika kontu azaltziarekin batera.

Teatro Interior taldekuen estrenua

Bonbardaketaren 75. urtemugaren harira, bestalde, Teatro Interior antzerki taldekuak lan barrixa estrenauko dabe maiatzaren 24an: "Balada de Perdedores", Gerra Zibilla bizi eben eibartarrak protagonista dakan antzezlana eta taldiarene sortzaillia dan Eduardo Falce-

Eibarko Bonbardaketaren 75. urteurrenaren PROGRAMIA

Apirillak 21

12.30.- Biharamuneko Soka Dantza. Dantza eta pakea. Udaletxeko Bazar Aretoan.

Apirillak 25

19.00.- "Eibarko bonbardaketan 75. urteurrena" hitzaldixa, Jesús Gutierrez historialariaren eskutik. Portalean.

Apirillak 26

20.30.- Poesia eta kantuen errezitala, Maialen Lujanbio eta Juan Pinilla-ren eskutik. Coliseo antzokixan (sarrerak 7 eurotan salgai).

Apirillak 27

19.00.- "Bonbardaketak 1937" liburuaren presentaziñua, Bernardo Atxagaren eskutik. Portalean.

22.30xetatik 23.30xetara.- "Itxaropena" argi, soñu eta irudi ikuskizuna. Untzaga plazan.

Apirillak 28

19.00.- Kontzertua, Andrés Egiguren orkesta, Sostoa abesbatza eta Easo abesbatzare-

kin / "Gernika", Pablo Sorozabalen Kantata, abesbatza eta orkestarendako. Bakarlarri eta orkestarendako kontzertua. Biboliñarendako kontzertua Mi txikixan, Mendelssohn-en 64. Op. / 9. Sinfonixia, Mi txikixan, 95 Op, Antonin Dvorák-en "Sinfonía del Nuevo Mundo". Coliseo antzokixan (sarrerak 10 eurotan salgai).

Maiatzak 5

10.00etatik 13.00etara.- Eibarko bonbardaketa eta sua gertatu ziran tokixetara ibillaldi historikua. Untzagan hasitta.

Maiatzak 8

19.00.- "Gerraosteko Euskal Herrixaren erakitzia. Eibarko berreraikuntza biharak", Javier Muñoz 2009ko Juan San Martín bekiaren irabazliaren eskutik. Portalean.

Maiatzak 24

20.30.- "Balada de Perdedores", gerran girtutako antzezlaren estreinaldixa, Teatro Interior taldiarene eskutik. Coliseo antzokixan.

Antolatzaillia Eibarko Udala / Laguntzaillia Badihardugu Euskara Elkarte

Herrixa hutsetik jasotzen

Gerra sasoian bonbak eta bestelakuak txiki-txiki eginda laga zittuen Euskal Herriko toki morduia eta, herri batzuren kasuan, gaiñera, gerria amaituta berreraikuntza biharrerri ekiteko orduan ixa hutsetik hasi bihar izan ziran, abioietatik bota zittuen bonbak lehertu ostian ezer gitxi geratu zalako zutik. Hori izan zan, hain zuzen be, Eibarren kasua. Maiatzaren 8xan, 19.00etatik aurrera, "Gerraosteko Euskal Herrixaren eraikitzia. Eibarko berreraikuntza biharrak" izenburuko hitzaldixan horren barri emongo dau **Javier Muñoz** 2009ko Juan San Martin bekiaren irabazliak Portalean. Hain zuzen be, Eibarko berreraikuntza zelakua izan zan sakonian ikertu dau Muñozek eta hitzaldixan esango dittuenetako batzuk aurreratu deskuz. Berak kontau deskunez, "ezer jasotzen hasi aurretik, eskonbruak kentzen eta oindiok zutik eguazen etxiak-eta apuntalatzen hasi ziran. Edozelan be, herrixan biztanle gitxi eguazen, baliabidiak be falta ziran. Gauzak holan, Udalak zuzenian laguntasuna eskatu zetsan Diputaziñuari, zeozertan hasteko modua izateko".

Baiña gure herrixak bizi eban egoeria beste askotan bizitzen ziharduen eta, holan, 1938xan, **Regiones Devastadas** dalakua sortu eben eta danian beran bittartez bideratuko dittue berreraikuntzarako biharrak eta bertatik markauko dittue, baitta, berreraikuntzarako oiñarrizko ilduak. Ikertzailliak esplikau deskunez, "garbiketa biharrak amaittu ostian ekin zetsen berreraikuntzarako proiektuari eta 1948ko urrirako amaituta eguan. Eibarren eguan toki faltiari konponbidia emon nahixan erabagi eben, adibidez, Ego errekia bideratzia eta tapatzia. Oiñarrizko zerbitzu batzuk be ziurtatu zittuen, adibidez, posta, telefono, ospittal, anbulatorixo eta bestelakuak jasota. Hezkuntza eta aisialdixa be kontuan hartu zittuen. Horrekin batera, behin gerria amaituta, Eibarren etxebizitza premiña haundixa eguan eta horri erantzuteko egin ziran, bestiak beste, M^a Angela kaleko etxiak, Carlos Larrañagakuak eta beste batzuk be. Eta, hórri daneri laguntzeko, 1956xan IMESA udal inmobiliariak eratu eben".



Sokadantzia Oñatin 1918xan. Bonbardeuaren urteurrena gogoratzeko programaziñuari sokadantziarekin ekingo detse. / RICARDO MARTÍN / KUTXA FOTOTEKA

sek idatzittako testuan oiñarrittutakua. Sardo Irisarrik zuzendutako biharran, Falcesekin batera Maite Lorenzo eta Juan Manuel Canok jardungo dabe taula gaiñian eta argiztapenaren eta soiñuaren ardurua, barriz, Alberto Toledanok eukiko dau. Jantzixen diseiñua, bestalde, Jose Miguel Garcarena da. Antzezlanak II. Errepublikan hasi eta Gerra Zibilaren amaieraraiñoko tartian gure herrixan bizi izandako girua ekarri nahi dau gogora.

Eta, programaziñua ekitaldi horrekin agurtuko badogu be, bonbardaketak gogoratzeko ekimenak urte osuan jarraipena eukiko dabe. Udarako, bestiak beste, herririk herri juango dan "Gerra eta bakea: ikuspegi pertsonala" izenburuko argazki erakusketia julixuaren 17tik abuztuaren 9ra bittartian gurian izango dala aurreratu dabe eta irailaren 21ian, barriz, Kukai dantza taldekuak "1937 Por las sendas del recuerdo" ikuskizuna eskinduko dabe.

Instituto de Maquinaria Tecnológica

INGENIARITZA

Imh

Ate apirilaren 21ean,

irekiak goizeko 11:00etan

etortzeko deitu 943744132ra edo idatzi hemen: www.imh.es

DBH Ondoren?

Irak

Ikasi...

BATXILERGOA

amaitzean?

Go-Mailako

eta ondoren lanera edo ikasten jarraitu...

... goi-mailako

egiteko

INGENIARITZA:

Tratamendu


Industria

- Mekanizazioa
- Mantenu
- Elektromekanikoa

- Fabrikazio mekanikoko Diseiñua
- Fabrikazio mekanikoko
- Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

- Prozesu eta Produktu
- Berrikuntzaren Ingeniaritza (bideratzen)

TEEN-
AJEA



Aurtengo Santa Ageda bezperan
santaeskean irtendako
baserritarren taldea.

Eneritz Mandiola^ggaineko baserrian bizi da eta **Ane**, bestalde, **GISASOLA** baserrian. **Mandiola Balleko** neska gazte bi hauek poz-pozik bizi dira baserrian, "oso gustora". **Santa Agedan** eskean ibili ziren herriko baserritar gazteak eta, orain, **Santa Kurutzeko** jaiak prestatzen dihardute.

ENERITZ ALBERDI & ANE GISASOLA (baserritarrak):

"Baserrian inon baino osasuntsuago bizi gara"

- Nolako da zuen eguneroko bizitza?

Ane: Guk ez dugu baserriko lanetan asko laguntzen (barreak). Gurasoek egiten dute beharra gehienbat. Pixka bat laguntzea-rekin nahikoa dugu.

Eneritz: Nik kalean ere lana egiten dut, ileapaintzaile moduan; beraz, ez dut denbora gehiegirik baserrian laguntzeko. Ez dugu han lo eta jan besterik egiten, beharretan ere zertxobait laguntzen dugu.

- Animaliarik bai baserrian?

Eneritz: Gurean ardiak ditugu.

Ane: Guk behiak, ardiak, astoak... hainbat abere ditugu.

Eneritz: Gaztaia egiten dugu.

- Merkatu plazan saltzeko?

Eneritz: Normalean Euskal Jaiaren bueltan saltzen ditugu.

Ane: Gure etxean amama egunero jaisten da Merkatu Plazara baserriko produktuak saltzera.

Eneritz: Ni lehen, lanean hasi aurretik, zapatuetan jaisten nintzen herrira gauzak saltzera.

- Zer da baserrian bizitzeaz gehien gustatzen zaizuen?

Eneritz: Osasuntsu bizi garela.

Ane: Kalean zarata asko dago eta baserrian, bestetik, nahi duguna egiten dugu: zarata atera, nahi dugun tokietatik ibili...

- Eta alde txarrak zeintzuk izango lirateke, baldin badaude behintzat?

Eneritz: Kalera jaisteko, autoa derrigorrez behar dugula.

- Badaukazue gidatzeko karnetik?

Biak: Bai.

Ane: 18 urte eduki arte gurasoen menpe egon gara denbora guztian herrira jaitsi nahi bagenuen. Baina, gidatzeko karneta-rekin, libreago gara.

- Santa Agedan eskean ibili zireneten hainbat baserritar gazte. Nolako esperientzia izan zen?

Eneritz: Lehengo aldia izan zen eta oso ondo pasatu genuen.

Ane: Hasieran pixka bat arraroa egin zitzaigun, baina gero dena ondo joan zen.

Eneritz: Buelta nahiko handia eman genuen, 20tik gora baserritan zehar ibili ginene.

- Zenbat gazte batu zireneten?


Ane: Hogei inguru.

- Pentsatu duzue ekintza gehiago egitea?

Eneritz: Auzoko jaiak ere egiten ditugu, Santa Kurutzekoak, maiatzean, eta prestaketan laguntzen dugu.

Ane: Gazteok jolasak prestatzen ditugu batez ere.

IZARO MARTÍNEZ 2. urteurrena



*Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun
ilusioa eta bizipoza.*



Artearen islada gaztea

12 urteko martxaren bermearekin, Ignazio Zuloaga institutuak 'Egungo Islak' izeneko erakusketa jarriko du abian apirilaren 20tik 29ra Portalean. Urtero legez, ikasleek euren artelanak erakusgai ipiniko dute, edonork ikusi dezan eurek islatzen duten artea zelakoa den.

IKASLEAK DIRA, BAINA ARTEAK EZ DU IKASLE EDO EZ IKASLEEN ARTEAN EZBERDINTASUNAK EGITEN. Gazteak badira ere, eurek egiten dutenak edozein artistak egiten duenaren balio berbera dauka, eta hori horrela dela erakusteko, Portalean ikusgai izango dituzte euren lanak hilaren amaieran.

1999-2000 ikasturtean jarri

zen martxan 'Egungo Islak' ekimena martxan. Ikasketa artistikoak egitearen aldeko aukera egiten duten ikasleen obrak jendearengana hurbiltzea da erakusketaren xedea, kurtsoan zehar egindako artelanak plazaratzeko asmoz. Horrela, amaituta edo ez, ikasleek euren eskuekin egindakoak egoten dira ikusgai Portalean.

Erakusketan, ordea, ez dira



batxilergo artistikoa egiten diharduten ikasleen lanak izango bakarrik, argazkigintza eta bestelako lanak ere egongo dira. Besteak beste, marrazketa tekniko eta artistikoa, diseinua, oinarriak (barne diseinua, grafikoa eta industrial), margogintza, argazkigintza eta ikusentzunezko kultura. Ikasleentzat aukera paregabea da euren obrak herritarren eskuetan jartzea, eta ikasleak pozik sentitzeaz gain, hauen gurasoak ere oso harro sentitzen dira.

Hiru mural

Aurtengo edizioan nobedade nagusi bat izango du erakuske-

tak. Hain zuzen ere, 5x2 metroko tamainako hiru mural ipiniko dituzte Portaleko areto nagusian, bakoitza bost ikasleren artean gauzatuta. Modu horretan, jarduera hauek ikasleak bakarkako lanetan ez ezik, taldeko lanean trebatzeko ere planteatu dira, elkarrekin lana nola egiten den ikas dezaten. Hala ere, ez da berritasun bakarra izango aurtengo edizioan.

16 eta 19 urte bitarteko 45 bat ikasleren lanak egongo dira ikusgai erakusketan, eta hainbat estilo eta erako lanak aurkitu ditzazkegu euren artean. Gazteen artearen islada ikusi ahal izango da erakusketan.



Datorren barixakutik hilaren amaierara arte egongo da ikusgai Institutuko erakusketa.

Ketesak 2010 *Analago eta desakabatuak instalazio esonk eta materialak*
abontail, saskiak, osapenak, fiturategiak...
bulego materiala
enpresetan banatzen dugu
 Estazioa kalea, 12
 20000 Eibar
 943 257545 / 943 257546
 Fax: 943 257546
 www.ketesak2010.com

Lan Aseguru Artekaritza
Autoa, Etxebizitza, Istripu eta Bizitza aseguruak...
...ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK
 Estazio, 12 - behea Tel. 943-257545 Fax. 943-257546

Otaola etorbidea, 3 - atzea (Hiper Eroskiren alboan)
Iruki Sagardotegia
 Tel. 943 20 68 44
 irukieibar@hotmail.com
 www.irukieibar.com

GAZTEMENUA
barixaku gauetan
 txotxa eta garagardoa barne

DENA 18 € BARNE

Entsalada mixtoa edo Bakailao tortila edo Bakailao konfitatua
Txerri-salheskia parrillan edo Oilasko erreka parrillan edo Okela gisatua
 (Hirurak patata goarnizioarekin)
Gaztala, intxaurrek eta membrilloa
 Oglu, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

OSASUN

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57



HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hortz, begarria eta kaxkita kirurkiaz hartzeko zentroa.

943 20 18 81

bista eder

Irribarreak gazteu egiten gaitu

Implante eta Horta-Estetikak onak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxa: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

hartz-klinika

B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Tel.: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

RPS 336/05

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hartz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Laguardia, 6. behea - Tel. - Fax. 943 906 044
www.clinicaabontza.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

ARRAGUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia. OSTEOPATIA NEUROLOGIA

NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

Hemen zure tokia izan nahi baduzu: deitu 943-206776 telefono zenbakira



GOZA

Fisioterapia

fisio&más
Fisioterapia Fisioterapeuta y Fisioterapeutas Deportivos

- * Esku Terapia
- * E.P.I.® (Tendinitis tratamendua)
- * Esku Drainatze Linfatikoa
- * Mesoterapia

– Kirol Berregokitzea
– Osasunerako ariketa agindua

Tx4 Gimnasioa **Aupa Zen**
Ifar Kale, 3 Jausoro, 1
EIBAR ELGOIBAR
667 95 36 28 943 74 34 40

Podologoak



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGIA
ERDIKO KALEA

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

Okulistak




Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainartea
943 20 19 82

PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

 **Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com



Clinica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmología Clínica

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnos: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hortz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

BIZI OSORAKO GARTZELA ZIGORRA

Gaur egun indarrean dagoen legedia eskuan, delitu bat egiten duen pertsonari ezar al dakioke bizi osorako gartzela zigorra?

Espainiako Konstituzioaren 25. Artikuluak xedatzen du askatasunaz gabetzen duten zigor guztiek, helburu dutela preso berrezitza eta bergizarteratzea. Konstituzioak heriotz zigorra espresuki desagertarazi zuen Espainiako legeditik (guda garaian lege militarrek ezar dezaketena salbu). Ostera, Konstituzio horrek ez zuen bizi osorako gartzela zigorra berariaz baztertu. Hau da, 1978ko Lege Nagusiak ez du bizi osorako espetxe zigorra aipatzen, ez ezartzeko, ez baztertzeko. Seguru asko Konstituzioa idatzi zuten jaun haiek ez zutelako puntu horretan adostasunik lortu (beste hainbatetan gertatu zen moduan), eta ondorioz, zehaztu gabe laga zuten. Sartu zuten 25. artikulua, esanez gartzela zigorra preso berrezitza eta bergizarteratza bideratuta egongo zela, eta gaur egun artikulua hori da mugari bizitza osorako gartzela zigorraren aldekoen eta kontrakoen artean.

Alegia, gartzela zigorraren helburua preso dagoen pertsonari heziketa berri bat ematea bada, eta batez ere, askatasun gabetze zigorra berriro gizartean txertatzeko baliabideak ematera bideratuta baldin badago, nekez ulertu ahal izango da Lege Nagusiak bizitza osorako askatasun gabetzea ahalbidetzen duenik. Hau da, zigorraren helburua bergizarteratzea bada, zigorraren ondoren zigortutako herritarrari aukera eman beharko zaio berriro gizartean aritzeko, eta beraz, aipatutako artikulua hori hitzez hitz hartuta, delitugile bati ezingo zaio ezarri bizi osorako gartzela.

Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.




Elena Laka
abokatua



Aipatutako artikuluan oinarrituta, 1978ko Konstituzioa onartu zenetik, Kode Penalak ez du aurreikusi bizi osorako gartzela zigorrik merezi duen deliturik. Ezartzen duen gartzela zigorrik luzeena 30 urtekoa da (30 urte bizi osoa izango ez balitz bezala, bidenabar esanda).


Bestalde, bizi osoa askatasunik gabe giltzapetuta pasatzeko zigorraren defendatzaileek, Ruiz Gallardon ministroa kasu, baita ere Konstituzioa hartzen dute oinarritzat, seinalatuz Konstituzio honek ez duela berariaz bizi osorako gartzela zigorra baztertzeko, adibidez, heriotz zigorraren kasuan egiten duen bezala. Espresuki baztertzeko ez denez, argudiatzen dute, Konstituzioan badu lekurik.

Lege erreforma aurrera eramaten bada, ikusi beharko da talde politikoren batek auzia Konstituzio Auzitegira eramaten ote duen, eta behin hori gertatuta, Konstituzioaren zaintza xede duen epaitegi gorenak, zer ebazten duen egun horren galduta eta horren hibatuta dagoen espetxe zigorraren bergizarteratzeko helburuaren gainean.



Kiroljokoa Ligaren azken-aurreko jardunaldia astebururako

ASTE SANTUKO OPORRAK PASATA, INOIZ BAINO LEHENAGO ERABAKI DEN foball-zaletuaren Euskal-jokoa liga txapelketak azken bi jardunaldien aurrean aurkitzen da. Asteburuan Koskor txapelkunak Azkena Kalton-egingo dio aurre, azken jardunaldian C. Dental Ekoden 9-1 egurtu eta gero (Carlasek sartu zituen horietatik zazpi gol). Bigarren posturako borrokan diharduten Alkidebak (50 puntu) eta Durangok (49) neurketa zailak izango dituzte oraingoan: Teknografik eta EzDok, hurrenez-hurren, izango dira euren aurkariak.



Santamaria eta Narbaiza Udaberri torneoko azpitxapelkunak

KLUB DEPORTIBOKO KADETE MAILAKO BIKOTEAK EZIN IZAN ZUEN ZUBIZARRETA-PAGADIZABAL Hondarrribikoaren aurrean ezer egin eta amore eman zuen Zestoan jokatuako partidu-



duan (22-10). Hala ere, denboraldi bikaina egin dute eibartarrek, aurreko ligaxkako zazpi partiduetatik sei irabazita eta finalerdietan Arrasateko Garate eta Egriari 22-20 irabazita. Finalean, ostera, Santamariaren eskuko minak eta aurkariaren jokoak aukerarik ez zien eman Angel Zubizarretak zuzendutako bikoteari.

Areto-foballeko gipuzkoarren arteko derbia Concepto Egilerentzat


LASKORAIN 6-2 GARAITU ZUEN DEBABARRENEKO ARETO-FOBALLEKO ORDEZKARIAK

Elgoibarren jokatuako partiduan, horrela lau jardunaldietako emaitza kaxkarrekin amaitzeko. Tolasarrak jaitsiera postutik ihes egiteko asmoarekin etorri ziren eta garesti saldu zuten porrota, lehenengo zatian bana berdindu eta gero 2-1eko kontrako emaitzarekin aldagetara joan baziren ere. Hortik 5-1era joan ziren elgoibartarrek, partidua eroso irabazi arte. Juananek zuzendutako taldea gehiago izan zen Laskorain baino eta probintziako talde osatuena duela erakutsi zuen. Yarza eta Xabi Pérez izan ziren goleatzaile nagusienak, bakoitza bi golekin.



Asier Cuevas Gipuzkoako txapelkun erdi maratoian

ASIER CUEVAS EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ATLETAK ERDI MARATOIKO DISTANTZIAKO Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Azkoitia-Azpeitia lasterketan. Lasterketara ozta-ozta iritsi zen (lokartu egin baitzen) Wakeyo Haptamu etiopiarra izan zen nagusi, Mark Korir bigarrenari hamar segundo aterata. Eibartarrak 1h08'40"ko denbora behar izan zuen 21 kilometrotik gorako distantzia osatzeko eta berarekin sartu zen, emakumezkoen mailan marka berria ezarriz, Eunice Kirwa keniarra. Azken honek, gainera, bereziki eskertu zuen Cuevasek eskainitako laguntza lorpen horretan. Denbora bikaina eibartarrarena, une honetan Italiako Seregno herrian apirilaren 22an jokatu den 100 kilometroko munduko txapelketa prestatzen dihardu-eta. Azkoitia-Azpeitia proba horretan Cristina Loeda (7.a emakumezkoen arloan), Abdelmalik Samadi (48.a) eta Josu Azkonaga (191.a) ere izan ziren.



Otxoa Memoriala jokatu da etzi

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK ANTOLATUTA, OTXOA MEMORIALAREN 52. EDIZIOA jokatu da domeka goizean kadete mailako txirrindularien artean. Irteera goizeko 10.30etan emango da Untzaga plazan eta 66 kilometroko ibilbideari egingo diote aurre parte-hartzaileek: lehenengo Elgoibarrera joan dute, jarraian Maltzagatik Eskoriatzaraino joateko eta han buelta eman eta Eibarrera zuzenean etortzeko. Helmuga Urkizu pasealekuaren 11 zenbakiaren aurrean kokatu da eta lasterketa 12.10ak bueltan amaituko da.



Helmuga Urkizun kokatu dute, urtero moduan. / ARTXIBOA


Kalamuako sei judokentzat Euskadiko selekzioa helburu

BIHAR JOKATUKO DEN JIU-JITSU KIROL MODALITATEKO INFANTIL, KADETE ETA JUNIOR MAILETAKO Euskadiko selekzioak osatzeko lehiaketan, Kalamua judo klubak sei judoka sartzeko asmoa du gero maiatzaren 5ean Madrilen izango diren finalerarako. Bestalde, Manu Agirre epaile olinpikoak gaurtik domekara arte Madrilgo Villaviciosa de Odónen jokatu diren junior mailako Espainiako txapelketetan izango da.

Eduard Prades kataluniarra nagusi Valenciaga Oroitzarrean

NAGUSITASUN OSOZ IRABAZI ZUEN MOPESA TALDEKO EDUARD PRADES KATALUNIARRAK


Valenciaga Oroitzarreko 41. edizioa. Afizionatuen mailako estatuko proba garrantzitsuena bereganatuta, Espainiako Kopako liderra da gainera Prades. Ihesaldiak izan ziren nagusi 165 kilometroko lasterketan eta, sei minuturaraino heldu zen azken Elgetan bertan behera laga eta gero, irabazlea bakarrik pasatu zen Ixuatik, hortik bere alde minutu bateraino handituz San Miguel gainean. Helmugan ere alde horri eutsi zion, Airan Fernández taldekideari eta Aysa taldeko Borja Abasolori aurrea hartuz. Irabazleak mendiko sailkapena ere bereganatu zuen.



Irabazlea podiumean. / LEIRE ITURBE

Urbateko waterpolistak aurkariaren zain promoziorako

GASTEIZEN ERE ERRAZ NAGUSITU ZEN URBAT-URKOTRONIK, LAUTADA LIGAKO AZKENARI 15-5 irabaziz. Partiduari erritmo kaskarrean ekin zioten eibartarrek, baina bigarren zatiko 5-0 emaitzak neurketa erabakita laga zuen. Bi jardunaldiren faltan eta 34 punturekin, promoziorako postua bereganatu du Eibarko waterpolo taldeak eta, maiatzaren 5ean, 20an eta 27an (hiru jardunaldietako onena garaile) zeinen aurka jokatuko duen zain dugu: Getxo, UPNA eta Leioa



Askartza izan daitezke aurkariak. Kirol hau praktikatu nahi duen edonor Orbeara joan daiteke martitzen, eguen eta barixakuetan, 18.00etatik aurrera, eta bertan izena eman.

Durangoko duatloian ere Ziaran izan zen onena bere mailan

EIBAR TRIATLOI TALDEKO ORDEZKARIAK BERRIRO IRABAZI ZUEN 23 URTETIK AZPIKOEN mailan, parte hartu duen azken aldiko lasterketetan bezala. Sailkapen absolutuan 8. postuan amaitu zuen proba Ane Ziaranek; hala ere, ez zen bera izan Eibarko ordezkari bakarra Durangoko duatloi horretan. Honako hauek izan ziren Eibar Triatloi Taldeko beste bederatzita parte-hartzaileak: Juan Jose Romero (85. postuan), Andoni Mayo (103), Roberto Gartzia (104), Jon Agirrebeña (179), Roberto Fernández (188), Alberto Cid (206), Xabier Arrieta (230), Eduardo Cid (232) eta Iñaki Serrano (272).

Eibarrek du 3. postuan amaitzeko aukera gehien

POSTUAK GERO ETA FINKATUAGO DAUDE 2. B MAILAKO BILGARREN MULTZOAN eta Eibarrek, behin lidergoa baztertuta, ia aukera guztiak ditu gaur egun dagoen 3. postuan liga amaitzeko. Bost jardunaldi geratzen dira amaitzeko eta, Ponferradinak bost



puntuak alde kentzen dion moduan, Amorebieta lau puntura dute eibartarrek (Alavés zortzira dago). Domekan El Malecón-en jokatuko dute Manixen mutilek, Torrelavegako Gimnástica-ren aurka, 17.00etan hasiko den partiduan. 13. postuan daude kantabriarrak, jaitsiera postutik ihes egingen, baina ez dira aurkari errazak izango.

Urkiko nesken talde bien gol zaparradak

INFANTIL MAILAKO TALDE NAGUSIENAK ALOÑA MENDIRI 6-1 IRABAZI ZION BILTARTEAN, bigarren taldeak marka hori gainditu eta 9-0 nagusitu zitzaion Sorluzeri. Bederatzi gol horietatik, zortzi Miren San Martinek sartu zituen, orain arte aurrelariak diharduen martxan beste jauzi bat emanez: orain arte 40 gol sartu ditu San Martinek 18 partidutan, hau da, bi goletik gora partiduko. Ane Prietok debutatu zuen taldearekin eta Itsaso Go-




Miren San Martinek zortzi gol sartu zituen.

rostegik sartu zuen beste gola. Urki A taldearen golegileak Julene eta Rodríguez izan ziren (bina gol) eta Eva eta Ainhoa (bana).

Bigarren mailako txapelketako partidua Astelenan

TXAPELKETA NAGUSIAREN MODUAN, PROMOZIO TXAPELKETAKO FINALERDIETAKO azken jardunaldia jokatuko da asteburuan; eta horietako partidu batekin hasiko da Astelenako domekako jaialdia. Urrutikoetxeak eta Ibai Zabalak aurre egingo diete honezkero finalerako txartela eskuan duten Jaunarena eta Ceciliori (herenegun izan ziren pilotak aukeratzen). Partidu nagusian, González-Merino eta Irujo-Galarza bikoteek neurtuko dituzte indarrak: aurreko domekan Martínez de Irujok eta Ladis Galarzak osatutako bikoteak 22-15 irabazi zion Gonzálezek eta Zabaletak osatutakoari. Jaialdia amaitzeko, Gorka eta Mendizabal III.aren arteko buruz-burukoa ikusi ahal izango da.



Eibar Eskubaloia maila handiagoko taldeekin Kopan

EIBARKO TALDEAK EGINDAKO ESKAERA HAINZAT HARTUTA, GIPIZKOAKO FEDERAZIOAK

baiezkoa eman dio Somos Eibar Eskubaloiak estatuko ligako 1. eta 2. mailetako taldeen aurka jokatzeari. Horrela, eibartarren lehenengo taldeak Alkorta Elgoibar, Bigara Pulpo, Atez Ate Usurbil eta Ford Mugarri Arrasate izango ditu aurkari bihar eta etzi hasiko den itzuli bateko ligan; aukera polita, beraz, Imanol Alvarezen mutilen maila ikusteko aurkaririk izan ez duten liga baten ondoren.



Euskadiko finala Eibarren

Mutilen kadete mailako Euskadiko txapelketako lauko finala jokatuko da Ipurua kiroldegian hilaren 20tik 22ra. Eta hor izango da Fernando Fernándezek zuzentzen duen taldea, Bidasoa, Pulpo eta Tolosarekin batera: liga lurraldeko mailan hasita ere, gorantza egin eta lauko finalean plaza eskuratu dute eibartarrek.

Hierros Anetxeko errugbilariak Espainiako tituluaren bila

IGOERA KANPORAKETAN AURKARI ERRAZENA EGOKITU ZITZAION MODUAN, 1. Nazional mailako txapelaren bila aurkari zailena izango du Txema Isasak zuzentzen duen taldeak. Madrilgo Ingenieros izango dute aurkari eibartarrek, hasi bihar Madrilen jokatuko den partidarekin eta hurrengo zapatuan Unben jokatuko denarekin jarraitzeko. Ingenierosek Zarautz (3. sailkatua Eibar Hierros Anetxeren multzoan) gainditu zuen mailaz igotzeko: Astin 32-27 galdu eta gero, 49-0 irabazi zien kostaldekoiei itzuliko partiduan. Kanporaketa horretako irabazleak finala jokatuko du Universidad de Granada edo CAT A Coruñarekin.



Isasaren mutilek aurkari gogorrenari egin beharko diote aurre oraingoan.

Ruibal mailaz igo da hiru jardunaldiren faltan

LEGAZPIKO VICUÑA KIROLDEGIAN ANDARAITZI 44-68 IRABAZIZ, ESKURATU ZUTEN eibartarrek Lurraldekako 2. mailara igotzea; beste partidu bat irabazita, lehen postuan amaituko dute liga. Inoiz baino sasoitsuago dago taldea eta, denboraldiko partidu borobilenean, hasieratik hartu zuen aurrea. Azurmendik 17 puntu lortu zituen, Polancok 16 eta Arnaizek 13.



Ruibal eta Katu Kaleren arteko derbiaren irudia.

Katu Kalek, bestalde, 91-66 galdu zuen Mondragón Unibertsitatea B azken sailkatuaren kantxan. Zazpi jokalarirekin bakarrik aurkeztu zen Eibar taldea; hala ere, negargarri jardun zuten eibartarrek eta erraz galdu.



Errepidea zaleteuz bete zen txirindulariak luaxaren bila zihozazenean. / EKHI BELAR

Zaletuek gertutik jarraitu zuten Euskal Herriko Itzulia Eibartik pasatzerakoan

SAMUEL SANCHEZ-EK, ARRATE GAINAN IRABAZTEAZ APARTE, ITZULIA ERE bereganatu zuen Oñatin zapatuan jokatutako erlojupeko azken etapan ere nagusituta. Euskal Herriko Itzulia interes handikoa izan zen azken etaparaino eta hamar bat laguneko talde bateko izan zuen itzulia poltsikoratzeko aukera azken unera arte. Arrateko etapak zale asko batu zituen errepidearen izkinetan eta gauza bera Eibarren irten eta Ibardinen amaitu zuen etapak.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

● KOROAK ● ESKELAK ● HILARRIAK ● AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:
Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 FAX: 943 202564

Bere kantu batekin egindako dantzak zeharo hunkituta utzi zuen Mikel Urdangarin. Traspasos Dantza Taldeak eragin zion hori musikari bizkaitarrari eta ordutik proiektu bateratuan hasi ziren lanean. Horren emaitza 'Nora' da, eta gaur 20.30etatik aurrera izango dugu ikusgai Coliseoan.



MIKEL URDANGARIN (musikaria): "Publikoaren barrenak mugitu nahi ditugu"

- Traspasos Dantza Taldearekin 'Nora' ikuskizuna ekarriko duzu gurera. Zertan datza?

Dantzak, kantuak eta poemak elkarren babesean, horixe da 'Nora'-n aurkezten duguna. Ikuskizunaren ardatza hiru disziplina horien artean osatzen da, elkar harilkatze saio baten bidez. Edu Zelaietaren poemak, Traspasos-en koreografiak eta nire kantuak zein bertsiok agertzen dira bertan. 'Nora'-ren ezaugarri bereziena musika, enlatatua beharrean, kantuen bitartez zuzenean ematean datzala esango nuke. Hiru musikari taula gainean dantzariei espazioa marraztuz, interakzio sakona sortuz. Norantza jakinik gabe, baina mugimendura etengabe gonbidatuz.

- Musika egitetik haratago doan lana da. Zer ekarri dizu zuri?

Ez nuen sekula pentsatuko holako izaeradun ikuskizun batean sartuta egongo nintzenik, egia esan. Izan ere, proiektu hau dantzariek sortu zuten, haiek eman zuten lehenengo pausua eta ni ondoren etorri nintzen, beti pausu bat atzetik. Poz handia izan da niretzat, gauza exotikoa, bere falta izugarri nabarituko dudana.

- Nola sortu zen proiektua?

Orain dela lau urte jakin nuen nire kantu batekin (Panderuaren gizona) lanean zebiltzala beren ohiko prestakuntzaren barruan. Haien estudiora hurbildu eta niretzat dantzatu zuten espresuki. Sekulakoa bizi izan nuen. Ukuita, barrenak mugituta irten nintzen erakustaldi hartatik. Hortik gutxira proposatu nien zerbait mardulagorako bidaia. Horrela sortu zen 'Nora'.

- Nola hartu du jendeak?

Jendeak ez daki zer ikustera datorren, haien hasierako aurpegietan antzematen da hori. Baina saio zuzena da, biluzia, soila, ikusleen eta gure arteko zubia eraikitzen asmatur gero bete betean jotzen zaituena. Barrenak mugiarazi nahi ditugu, onerako bidean, ahal bada, eta uste dut orain artekoetan neurri handi batean lortu izan dugula.

- Era berean, 'Zuzenean' diskoarekin emanaldiak eskaintzen jarraitzen duzu. Nola lortzen duzu ekimen biak aldi berean egitea?

Arazorik gabe. Egutegia zaintzea baino ez dago lanek elkari traba egin ez diezaioaten. Bestela ere, krisiak leku sobera uzten digu gure bizitza ez hain eroetan. Lan asko izatea ez da guretzat problema, lan falta baizik.



Voces y Cuerdas berriua kontzertuan

Apirilaren 20an Voces y Cuerdas laukote berriztatua kontzertuan ikusteko aukera izango da Coliseo antzokian, 20.30etan. Taldearen ahotsa zen Asun Angera hil ostean, talde berria urrian sortu zen eta hau izango da bere lehenbiziko emanaldia. Gaur egun Vicente Ramirez-ek (ahotsa eta gitarra), Alberto Alberdik (rekintoa), Aitor Errastik (ahotsa eta perkusioa) eta Marivi Murillok (ahotsa) osatzen dute Voces y Cuerdas. Hori bai, taldea osatzen dutenen zerrendan izen berriak egon arren, betiko estiloari eutsi diote eta, beraz, eibartarren artean horren harrera ona duten bole-ro eta rantxerak eskainiko dituztela aurreratu dute. Sarrerak 6 eurotan eros daitezke.

Euskal-dantza ikastaroa Kultur

Larrain-dantza, fandango eta arin-arina dantzan egiten ikasteko aukera izango du nahi duenak, Arrate Kultur Elkarteak apirilaren 18tik maiatzaren 23ra bitartean, eguaztenetan 19.00etatik 20.30etara emango den ikastaroan. Izen-ematea Arrate Kultur Elkartearen bulegoan egin daiteke (martitzen edo eguen arratsaldetan), 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidean. Ikastaroaren prezioa 12 eurokoa izango da Kulturaleko bazkideentzat eta 15 eurokoa bazkide ez direnentzat.



Buradon Gatzagara bisitan Kulturekin

Arrate Kultur Elkarteak martxoaren 24an Buradon Gatzagara txangoa egin zuen eta bertan parte hartzera animatu zirenak ondo baino hobeto ibili ziren, hango historiaren berri jasotzen, upategiak bisitatzen eta, jarraian, bapo bazkaldu eta gero, egun-pasa ederra eginda.

Indalecio Prietori buruzko erakusketa

PORTALEKO ERAKUSKETA ARETOAK "INDALECIO PRIETO EUSKAL POLITIKAN, 1883tik 1962ra" izenburukoa hartuko du hilaren 29ra arte (martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara). Martxoan hasieran Bilbon estreinekoz ikusgai ipini zen erakusketa Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren eskutik ailegatu da gurera eta argazki, agiri eta bestelakoei esker, orain dela mende erdia Mexikon hil zen sozialismoaren buru garrantzitsuenetakoa izan zen Prietoren bizitza berrikusteko aukera izango dute bisitariek.



Li(buru-hausgarriak) umeen liburutegian

APIRILAREN 17-TIK AURRERA, UMEEN LIBURUTEGIAN "LI(BURU-HAUSGARRIAK)" LEHIAKETA EGONGO DA martxan (LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat). Beste urte batzuetan egindakoaren bidetik, liburuak irakurri eta gero, galdera batzuei erantzun eta irakurle gazteek buru-hausgarri baten piezak lortzen joango dira. Jokoaren helburua, puzzlean agertzen den irudia zeri dagokion asmatzea da eta, jakina, horrekin batera gazteak irakurtzera animatzea dute helburu antolatzaileek.



Udalekuetarako izen-ematea zabaltzear

ASTELEHENEAN, HILAREN 16-AN ZABALDUKO DUTE UDALKEUETARAKO alde zaurerik izena emateko epea 14-17 urte bitartekoentzat eta hilaren 24ra arte zabalik egongo da. Urteroko moduan, eskaintzan aisialdirako jarduerak, abentura, kirola eta hizkuntzak batu dituzte eta interes dutenek www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunera jo dezakete, 943 445 980 telefono zenbakira deitu edo, nahiago izanez gero, zuzenean Portalera joan edo deitu (943708435).

Sanjuanen inguruko lehiaketak

HURRENGO SAN JUAN JAIETARAKO KARTELA ETA ALKOHOL LARREGI EDATEAREN KONTRAKO

pegatina aukeratzeko lehiaketetan parte hartzeko epea zabalik dago. Parte hartu nahi dutenek maiatzaren 11ra arte izango dute euren lanak Pegoran aurkezteko tarte. Kartel lehiaketarako deialdia Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeak egin du eta irabazlearentzat 600 euroko saria banatuko dute. Pegatina-lehiaketa ere Euskara-Kultura Batzordeak antolatu du, Gizartekintzarekin batera, eta irabazleak 180 euro jasoko ditu.



laburrak

LAGUNTZAK UEU-KO IKASTARUETARAKO

Udalak, urteroko moduan, UEU-k eskainiko dituen ikastaroetan parte hartzen duten eibartarrentzat diru-laguntzak emango dituela gogorarazi du. Laguntza jasotzeko eskaerak 2012ko irailaren 28ra arte aurkeztu daitezke, Pegoran. Laguntza matrikula kostoaren %50ekoa izango da gure herrian errolatutakoentzat, gutxienez %85eko asistentzia izan badute.

BERTSO-AFARIA BIDE-ALDEN

Maiatzaren 4an (barixakua) izango da ...eta kitto! Euskara Elkarteak Bide Alde elkarte gastronomikoan urtero antolatzen duen bertso-afaria. Aurten Eibar eta Irungo taldeek jardungo dute lehian, bertsolari hauekin: Eibartik Aimar Goenaga eta Mikel Mugika eta Irunetik Manu Goiogana eta Aitor Errazkin. Sarrerak apirilaren 16an jarriko dira salgai ...eta kitto!-n bertan, 19 eurotan (bazkideentzat 17 eurotan).

47.000 LAGUN COLISEOAN


Coliseo antzokiak 2011n 47.139 lagun hartu zituen, bertan antolatutako ekitaldi guztiak kontuan hartuta. Zine-emanaldiek 24.062 ikusle erakarri zituzten eta iraila izan zen hilerik arrakastatsuenak, 2.894 ikuslerekin. Antzezkiunek ere publiko ugari erakarri zuten, 14.000 bat lagun orotara.



PAKITA BARRENETXEA URKIOLA

2012ko martxoaren 27an hil zen


Bizitzan bere alaitasunean eta bere azken bidaietan, Pakita eta familiaren atsekabeen bat egin duzuen guztioi, **ESKERRIK BEROENA.**



Eguen Zuri lehiaketako argazkiak ikusgai

ORAIN EGUN BATZUK BATU ZEN XV. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETAREN EPAIMAHAIA Arrate Kultur Elkartearen eta honako sariak ematea erabaki zuen: lehen saria Maite Beistegi San Ildenfosorentzat izan da, "...bost edo sei" lanarengatik; bigarrena José Vila-rentzat, "Iñauteriak-4" lanarengatik; eta hirugarrena, berriz, José Luis Mar-

tínez Arregirentzat. Felipe Loiola eta Dani Astarloa epaimahaikideek lehiakide guztiei partaidetza eskertu eta aurkeztutako argazki guztien kalitatea azpimarratu dute. Irabazleen zein saritu bariko lanak martitzenetik aurrera egongo dira ikusgai Topalekuan. Erakusketa hilaren 18ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian: astegunetan, 19.00-



Maite Beistegik irabazi du lehiaketa, "...bost edo sei" lanarekin.

etatik 21.00etara eta zapatu eta jai-egunetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. Irabazleei sariak

banatzeko ekitaldia, bestalde, erakusketaren azken egun horretan bertan egingo dute, 20.00etan Topalekuan.





Donostiako Akuarium-era lotara

MAIATZAK 11 ETA 12-RAKO DONOSTIAKO AKUARIUM-ERA BISITAN JOATEKO IRTEERA antolatu dute L.H-ko 5. eta 6. mailako nerabeentzat: Akuarium-a bisitatzearaz gain, irteeran parte hartzen dutenek bertan lo egiteko aukera ere izango dute. Izen-ematea apirilaren 24tik 29ra bitartean egingo da, Indianokua gaztelekuan, 18.00etatik 20.00etara (kuo-

ta 30 eurokoa izango da). Izena ematen dutenak aurreikusita dituzten tokiak baino gehiago badira, zozketa egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek. Bestalde, nahi izanez gero izena binaka emateko aukera eskainiko dute. Irteerari buruzko informazioa ezagutzera emateko bilera, berriz, maiatzak 8an egingo da, 17.30etan Portalean (3. solairuan).

Hezkuntzaren aldeko kanpaina

EGOAIZIA GKE-AK ETA JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK HAINBAT JARDUERA BEREZI ANTOLATU DITUZTE elkarlanean, mundu mailan gogoratuko den Hezkuntzaren aldeko Astearen harira: apirilaren 24an "En el mundo a cada rato" dokumentala emango dute, 10-14 urte bitartekoei zuzenduta; hilaren 25ean, berriz, "Irudi handia: eskubideak hasieratik" tailerra emango dute (6-9 urtekoentzat); eta hilaren 26an "Amina y musa aprenden" dokumentalaren proiektzioa eskainiko dute, hau ere 6-9 urte bitartekoei zuzenduta. Hiru ekitaldiak Juan San Martin liburutegian izango dira, 17.00etan. Horrekin batera, liburu, ipuin, joku eta DVDen mailegua eskainiko dute eta kanpainaren inguruko interesgunea egongo da martxan.



Aratoste giroa apirileko argazki erakusketetan

HILEROKO MARTXARI JARRAITUTA, apirilaren 30era arte "Aratosteak" izenburuko erakusketa bana egongo da ikusgai Portalea eta El Ambigú tabernetan, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik. Klub Deportiboan, berriz, Asier Aranzabalen "Mongolia" izenburuko dago ikusgai.

Dementzia nola saihestu azaltzeko hitzaldia


DATORREN ASTEKO BARIKUAN, HILAREN 20-AN JOSÉ FÉLIX MARTÍ MASSÓ Donostia Ospitaleko Neurologia zerbitzuko burua eta EHU-ko irakaslea Portalean izango da hitzaldia eskaintzen, 18.00etatik aurrera, Buruz Gimnasio Cerebral-ek antolatutako ekitaldian. Neurologoak dementziari aurre egiteko zer egin daitekeen azalduko

die hitzaldira doazenei. Adituaren berbetan, "burmuina 30 urterekin zahartzen hasten den organoa da eta, gainontzeko beste guztiak bezala, zaindu egin behar da. Horretarako biderik eraginkorrena aktibitateari eustea da, jarduera mentalek erretserba kognitiboa gehitzen baitute eta, beraz, luzaroan ondo mantentzea ahalbidetu".




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JULEN Zuazo Zuazua, hillaen 6xan sei urte bete zenduazelako. Etxekuen partez.



Zorionak, HIART, hillaen 5ian urtia egin zenduan-eta. Tio, tia eta aitxitxaren partez.




Zorionak, IKER Lage Castro, astelehengan 11 urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.




Ongi-etorri martxuaren 30ian jaixo zan UXUERI. Zorionak Gorka eta Leire gurasueri, aitxitxa eta amamaren partez.




Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga, bixar bost urte beteko dozuzelako. Famelixaren partez.




Zorionak, NAIÁ Mondragón Urizar, bixar urtebete egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, MAITE, gaur bederatzirte egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, IKER, hillaen 6xan urtia bete zenduan-eta. Etxeko guztien eta, batez be, izeko Montse eta izeko Carmenen partez.




Zorionak, AITOR González Valenzuela, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Aitxitxa, amama, birramama eta etxeko guztien partez.




Zorionak, IRAIA, hillaen 6xan urtebete egin zenduan-eta. Laztan haundi bat etxekuen eta, batez be, Aneren partez.




Zorionak, NADIA, martitzenian lau urte bete zenduazelako. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, lan-en partez.




Zorionak, MARKEL Maiora, bitxito!, hillaen 9xan lau urte bete zenduaz-eta. Segi zaren modokua izaten! Famelixakuen partez.



Zorionak, GAROA Magunazelaia, hillaen 9xan bederatzirte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat aitxitxa, amama, Enara eta Haizearen partez.



Zorionak, CLAUDIA, hillaen 5ian bost urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat gure printzesarendako famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL eta ENEKO, hillaen 2xan urtia egin dozue-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL, hareñegun hiru urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat aitaixo eta amatxoren partez.

HILDAKOAK

- Pakita Jiménez Clemente. 75 urte. 2012-III-26.
- Amelia Basabe Basabe. 90 urte. 2012-III-28.
- Francisco Gutiérrez Herrera. 62 urte. 2012-III-29.
- Consuelo Cid Fernández. 80 urte. 2012-III-29.
- M^a Dolores Fernández González. 87 urte. 2012-III-29.
- Pilar Calvo Arnaiz. 96 urte. 2012-III-29.
- Amaia Paredero Ogara. 84 urte. 2012-III-31.
- Jose Luengo Gato. 91 urte. 2012-IV-1.
- Jose González Ortíz de Zarate. 82 urte. 2012-IV-2.
- Juan Luis Odriozola Bastida. 64 urte. 2012-IV-2.
- Gerardo San Martín Muguruza. 90 urte. 2012-IV-3.
- Alberto Martínez Antxia. 86 urte. 2012-IV-6.
- M^a Isabel Ibarra Garitaonandia. 67 urte. 2012-IV-7.
- ACruz Elorza Gallastegi. 85 urte. 2012-IV-11.
- Josefa Vizcaino Castaño. 97 urte. 2012-IV-11.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

13an: 22.30
14an: 17.00, 19.45, 22.30
15ean: 17.00, 20.00
16an: 20.30

"La fría luz del día"

Zuzendaria: Mab. El Mechri



(2 ARETOAN)

13an: 22.30
14an: 17.00, 19.45, 22.30
15ean: 17.00, 20.00
16an: 20.30

"Indomable"

Zuzendaria: S. Soderbergh



(ANTZOKIAN)

14an: 17.00, 19.45, 22.30
15ean: 17.00, 20.00
16an: 20.30

"Battleship"

Zuzendaria: Peter Berg



JAIOTAKOAK

- Kimetz Cortés Corada. 2012-III-21.
- Ibon Montañó Pulido. 2012-III-22.
- Unai García Kortazar. 2012-III-25.
- Ander Canales Díez. 2012-III-29.
- Iman Abainou. 2012-III-31.
- Ihart Kortabarria Juaristi. 2012-IV-10.

horoskopoa

ARIES

Bide berriak aurkituko dituzu, aurretik imajinatu ezin zenezakeen formulak. Horrek aukera berriak irekiko ditu zure zerumugan.

TAURUS

Pilak ondo kargatu dituzu Aste Santuan, baina egunerokotasuneko lan gogorrek hondatu egingo du aurreneko egunetako umore ona.

GEMINI

Gaizki esandakoak barkatu eta ongi esandakoak kontuan hartu. Esaldi horri jaramon eginez gero, pozago biziko zara. Egizu aproba!

CANCER

Erabaki guztiak ezin dira eztabaidatu. Lantzean behin zure kabuz hartu behar dituzu erabakiak. Konfidantza gehiago izan zure buruarengan.

LEO

Asteburua ez da bestelakoa izango, baina astelehenari gogotsu ekingo diozu. Asko lagunduko dizu bizi-poz horrek egunerokotasunean.

VIRGO

Ez duzu lan handirik egin behar, baina oso alperre zarenez, azken unera arte utziko duzu dena. Emailtzu badakizu nolakoa izango den.

LIBRA

Momentua aprobetxatu, egun bikainak dituzu aurretik-eta. Daukazunaz disfrutatu, ondo pasatu eta gauza txarrak atzean laga itzazu.

SCORPIUS

Pozik zaude, ezta? Zergatik ote da? Zerikusirik dauka Aste Santuan gertatutakoak? Ea ba, kontuaguz zer gertatu zitzaizun.

SAGITTARIUS

Gogorra izango zara momentu txarretan eta eskuazabala norbaitek zerbaitek behar duenean. Bihotz handia duzula erakutsiko duzu.

CAPRICORNIUS

Itxarotea zer den jakingo duzu. Badirudi lagunak ados jarri direla beti berandu ailegatzeko. Hurrengoan badakizu, 5 minutu beranduago joan.

AQUARIUS

Astebete ...eta kitto!-ko horoskopoa irakurri gabe eta ez zenekien nora jo! Lasai, hemen gaude, eta berri onekin gainera. Bihar jakingo duzu zer den.

PISCIS

Askotan frogatzen da teoria eta praktika ez datozela bat. Teoria asko jakin zenezake, baina hori praktikan jartzea beste kontu bat da.

Barixakua 13**DANTZA**

20.30.- "Nora". Mikel Urdangarin & Traspasos. Sarrera: 7 euro. Coliseoan.

Zapatua 14**II. ERREPUBLIKA**

11.30.- Errepublikaren oroimen-ekitaldia. Untzagan eta Txaltxa-Zelaian. PSE-EEK antolatuta.

GAZTELEKUA

17.00.- Munduko apaingarriak. Indianokua gaztelekuan.

Domeka 15**TXIRRINDULARITZA**

10.30.- LII Otxoa Oroitzarrea. Gipuzkoako txapelketa, kadeteentzat.

Astelehena 16**GURASOAK MARTXAN**

18.30.- "Familia eta eskola: elkarren arteko eginkizuna". Aldatze ikastetxean.

PREBENTZIO ASTEA

19.00.- Ohiko larrialdia. DYA-ren ordezkartzan (Pagaegi, 5).

Martitzena 17**IKASTEN**

10.00.- "Cómo disfrutar de la música", Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

GURASOAK MARTXAN

12.30.- "Zer jakin behar dugun sare sozialeei buruz (Facebook, Tuenti, Web 2.0...)". Euskaraz. Mogel Isasi ikastetxean.

BARRY BARREZ

19.00.- Barry Barrez: "An seanachai road show" umorezko bakarriketa. Portalean.

PREBENTZIOAREN ASTEA

19.00.- Hesgailuen oinarritzko tailerra. DYA-ren ordezkartzan (Pagaegi, 5).

Eguaztena 18**IKASTEN**

10.13.- Mendi-ibilaldia: Abadiño (Muntzaraz, Larrigan, Mendiola, Sagasta) Atxarte. Irteera Estaziñotik (Ardantzan, 10.15etan).

IRAKURKETA KLUBA

18.00.- Umeen irakurketa kluba, euskaraz (izen-ematea itxita). Umeen liburutegian.

PREBENTZIOAREN ASTEA

19.00.- Etxeko istripuen prebentzioari buruzko hitzaldia. DYA-ren ordezkartzan (Pagaegi, 5).

EGUEN ZURI

20.00.- Eguen Zuri argazki lehiaketako irabazleei sari-banaketa. Topalekuan.

Eguena 19**IKASTEN**

11.00.- Bideo-hitzaldia. "Crisis económica: claves para su comprensión", Isaac Guereca-ren eskutik. Hezkuntza Esparruan.
19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

GAZTELEKUA

16.00.- Gaztepinxo. Indianokua gaztelekuan.

AURKEZPENA

19.00.- Eibar-Piura Kirol Eskolaren aurkezpena, Eibar K.E.-ak eta Egoazia GKE-a. Portalean.

PREBENTZIOAREN ASTEA

19.00.- Bihotz-biriken suspertzeari buruzko tailerra. DYA-ren ordezkartzan (Pagaegi, 5).

ikastaroak**– Larrain-dantza, fandango eta arin-arina.**

Apirilaren 18tik maiatzaren 23ra arte, eguaztenetan 19.00etatik 20.30etara. Izen-ematea: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan, 943-202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidean.

– "Istripuak ekiditea eta lehen sorospenak haurtzaroan".

Apirilaren 23tik 27ra, 10.00etatik 12.00etara, DYA-ko ordezkartzan (Pagaegi, 5).

– "Kotxeko mekanika eta etxeko konponketak" tailer praktikoa.

Non eta noiz: Maiatzak 8, 15, 22 eta 29 (martitzena) 17.50etatik 19.50etara, Andretxean.

– Hirigintza eta Generoa.

Non eta noiz: Maiatzak 7 eta 14 (astelehena) 17.00etatik 19.00etara, Andretxean.

– Batukada Feminista.

Noiz: Maiatzak 2, 9, 16, 23 30 eta ekainak 6, 13, 20, 27 (eguztena) eta 28 (eguna).

– Autodefentsa Feminista.

Non eta noiz: Maiatzak 26 (zapatua), 09.30etatik 13.30etara Orbea kiroldegian.

Aurreko lau ikastaroetako izen-ematea eta informazioa: **Apirilaren 26ra arte**, Pegoran.

– Argazkilaritza Maiatzean.

"Diálogos sobre composición", José Benito Ruiz-en eskutik. Non eta noiz: **Maiatzak 19**, 10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 20.00etara Portalean (areto nagusian). Izen-ematea: Doan, baina plazak mugatuak dira. E-maila idatzi argazkilaritza@deporeibar.com helbidera.



erakusketak

- Apirilaren 18ra arte
EGUEN ZURI argazki lehiaketako partaideen lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- Apirilaren 29ra arte
"INDALEZIO PRIETO reuskal politikan, 1883-1962". Portalean.
- Apirilaren 30era arte
JOSE VILAren "Aratosteak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**en "Aratosteak" argazki erakusketa. *El Ambigü kafetegian.*
- ASIER ARANZABAL**en "Mongolia" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

lehiaketak

- **Haurrentzako I. Ipuin Lehiaketa.**
Norentzat: 8 eta 12 urte bitartekoentzat, euskeraz eta gaztelerez. Informazioa eta lanak entregatzea: **Apirilaren 14ra arte**, El Corte Inglés-en.
- **Li (buru-hausgarriak).**
Apirilaren 17tik aurrera, umeen liburutegian (LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat).
- **Amestu Zure Herria.**
Informazioa eta lanak entregatzea: **Apirilaren 30era arte**, www.gurebaliok.com atarian.
- **Ixua-Valenciaga Memoriala argazki-lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: **Maiatzaren 4ra arte**, Elbarko Txirrindularien Elkartean (Pagaegi, 3 behea), cce@clubciclistaebarrres.org

farmaziak

- 13, barixakua**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 14, zapatua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 15, domeka**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)
- 16, astelehena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 17, martitzena**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- 18, eguaztena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 19, eguena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 20, barixakua**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.


tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

						7	5
1	8						
2				4	9		3
			3	8			9
3			6		4		2
	1			9	2		
	5		4	7			3
						5	1
9	6						

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). Logela bi, egongela, sukalde, komuna eta igogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi eta trasteroa. Igogailuarekin. 130 m². Guztiz berritua eta argitsua.. Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

– Conilen "Playa El Palmar" etxea alokagai, abuztuan izan ezik. Hondartzatik 500 metrora. Logela bi, lorategia eta parking-a. Merke. Tel. 607-310266.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajea salgai Bittor Sarasketan. Tel. 617-742848.

3.2. Errentan

– Martxan dagoen ostalaritza negozioa salgai. Tel. 616-664880.

– Neska talde batek lokal bat hartuko luke alokairuan, bainuarekin. Eibarren, Urkizu aldean ahal bada. Tel. 697-532570.

– 60 m²ko lokala (zatigarria) alokagai Otaola hiribidean. 24 urteko gorako koardilientzat eta musika-taldeen-entzatz egokia. Tel. 681-303507.

– Garajea alokagai Arrate-Biden. Itxia, behe solairuan eta garbitegiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Ordenagailuak konpontzen dira etxex-etxe. Prezio onean. Tel. 669-639526.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (egunez, gauzez edo orduka) eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-632922.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-029329 eta 670-831279.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257684 eta 671-328852.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 650-152866.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 686-802342.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 675-007271.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-897285.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatrian eta Psikologian esperientzia. Tel. 635-313375.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 626-292587.

– Mutila eskaintzen da igeltsero zein kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 626-292587.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-925929.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-725453.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 659-628990.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 943-257684 eta 671-329852.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-303534.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 670-831279.

– Topografo titulatuak topografia lanak zein beste edozein egiteko prest. Tel. 638-560617.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-571210.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia elektrizitatean eta iturgintzan. Tel. 678-255795.

– Mutil euskalduna eskaintzen da kamarero jarduteko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 696-496427 eta 943-200939. Javier.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da etxeak edo pegoarak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 646-323154.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 666-771151.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 669-513926.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 660-164576.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interno. Tel. 659-776622.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan edo orduka. Tel. 610-992855.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 617-126144.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-116350.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-798284.

– Neska eskaintzen da 20.00etatik 08.30etara nagusiak zaintzeko. Tel. 634-007292.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 690-925929 eta 943-531378.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-109323.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 676-244793.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-784360.

– Mutila eskaintzen da lantegiak garbitzeko, txofer edo banatzaile jarduteko eta okindegian lan egiteko. Tel. 689-286167.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 649-770161.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 619-041821.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-665395.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 636-581194.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-571210.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta peoi moduan. Tel. 616-218076.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 686-679705.

4.2. Langile bila

– Ostalaritza aprendiz behar da (30 urteko behera). Kontratua eskainiko zaio. Eibarko 150 postakutxa.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Gazte tituluduna eskaintzen da DBHko Zientziak arloko klase partikularrak emateko. Esperientzia. Tel. 636-385156.

– Esperientziadun irakaslea eskaintzen da maila desberdinetako klase partikularrak emateko. 2/3 lagun. Tel. 685-739709.

– Atzerriko Hizkuntzan diplomatutako mutila eskaintzen da LH eta DBHko klase partikularrak emateko. Tel. 651-503971.

– Psikologian eta Psikopedagogian lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. Tel. 628-591462.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Avalanch 3.0 bizikleta salgai. Tel. 687-342962.


– Hankadun somiera (1'35x1'90), bi mahaitxo eta bi lanpara salgai. Ia berriak. 80 euro. Tel. 660-805301 eta 679-867543.

– Salmoi koloreko sofa bi salgai (3 eta 2 lagunentzakoak). Urtebete. 300 euro. Tel. 660-805301 eta 679-867543.

– Jatetxea itxi dugula-eta, hainbat artikulu saltzen ditugu, karpa bat, erakustokia, izotz-makina tartean (oinarrizko makinaria ez). Tel. 616-664880.


6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguzkitarako betaurrekoak aurkitu ziren Arraten marxoaren amaieran. Tel. 943-206902. Kontxi.



DEBA

Markiegi, 6 (Tel. 943-608052)




LEKEITIO


Sta. Elena, z/g (Tel. 94-6842655)

Aurten Lekeitioko edo Debako Aisia hoteletan ezkontzen bazara, honakoa jasoko duzu opari:


Autobusa doan zure gonbidatuentzat / 2 ordu DJ-arekin / Afari osteko mokaduak barra librean
Deskontu handiak **argazki erreportaje**n (ezkontzarako doaneko gonbidapenak barne)
Suite Junior motako **logela** eztei-gauerako (edo bono baliokidea) + “**Jarri Galant**” pack termala
Aipatutako eskaintza 100 gonbidatutik gorako ezkontzarako da. Gonbidatu gutxiagorekin, galdetu hotelean baldintza eta opariei buruz.



deba@aisiahoteles.com



lekeitio@aisiahoteles.com



Euskararen Transmisioa II. MINTEGIA

2012-V-8 (asteartea) Portalea Kultur Etxean

Egun osoko
EGITARAUA

IZEN-EMATEA
ASTELEHENETIK AURRERA:
...eta kitto! Euskara Elkarte
943-200918
normalizazioa@etakitto.com



TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK